# AURKEZPENA

## RIEV — EN BERRAGERPENERAKOAN (1983-IX-23) *

Iragana da geroaren maisu edo bide-erakusle. Eta Julio de Urkijo jaunak sortu zuen *Revista Internacional de los Estudios Vascos* Izeneko aldizkaria, berak eraendu zuen bitartean zer izan zen ikusteak, orain, EUSKO IKASKUNTZAK bultzaturik, berriro hasteko dagoen unean, abiapuntu bezala balio diezaiguke gerora zer izango den asmatzeko.

R.I.E.V., hasi zenetik bertatik, euskal-jakintzarekin zerikusirik zuten jakintza maila berezietan osperik handieneko ohikundetara irekia zegoen aldizkari bat izan zen. Julio de Urkijo jaunak 1907an sortu zuen euskerari buruz eta euskal-ezikerari buruz ari ziran jakintsurik handienen laguntzarekin.

Bere eginkizuna, beraz, bete zuen lurraldearen eta euskaldungoaren aurpegi bereziei jaramon eginez: geografia, euskaldunon hizkuntza zaharra, hauen giza mota, biziera, soziologia, historia, etab. hau da, euskal etnia, euskal herria, Mendebaleko Europan gizasail zaharren bezala eritzia dagoena, Neolitikoan identifika litekeen bakarra, aztertuz *(1)*.

---

(1) Hugo Obermaier, Urgeschichte des Menschhit, 294 (Herder Verlagsbuchhandlung, Freiburg in Breisgau 1931).

---

* Honako aldizkari honetatik aterata: RIEV, Tomo 28, n° 1, Enero-Junio 1983, ok. 13-15, Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Aipatu berri ditugun jakintzok bere arauak kodifikatuak zituzten jadanik-ikerketa-bideak, konparazioakoak eta gertakizunen ulerpenezkoak —eta haien arabera ahalik eta objetibitaterik handienaz, euskaldungoaren ikerketa eremuan uki zitezkeen alderdi edo ikusoegi guztiak iker zitezkeen.

Zorionez baziren garai hartan, Euskalerrian eta kanpoan, euskalariak jakintza berezietara emanak, beren berezitasunetan, gure herriak aurkezten zituen gorapiloak askatzeko jakintza horiek erabiltzen zituztenak. Baina bildu egin behar ziren, edota elkarren arteko harremanak sortu, bateratu eta lotuko zituen erakunde edo instituzio baten beharra zegoen.

Hori zen Urkijok R.I.E.V. en bidez egin nahi zuena eta hain neurri handi batetan lortu zuena. Lehen urtealdian argitara eman zituen zenbakietan (1907), Txomin Agirre, Telesforo Aranzadi, Federico Baraibar, Arturo Campión, Charencey-ko kontea, J. B. Daranatz, V. Dubarat, Karmelo Etxegarai, Fidel Fita, G. Hérelle, J. Jaurgain, Georges Lacombe, Pierre Lhande, L. Elizalde, Serapio Múgica, Hugo Schuchardt, Julio Urkijo eta J. Vinson azaltzen dira.

Haamabost urtez jarraitu zuen aldizkariak horrela, onenetaz baliatuz, lurraldearen eta euskeraren eta gure herriko kulturaren ikerketak bultzatu, suspertu eta ezagunerazten saiatuz.

Eta horrela gure aurrerapenentzat giro egoki bat sortzeari lagundu zion. Baina mende honetako bigarren hamar-aldian izan genduan giro bero hura gabe (hura sortzen lagundu zuen hain zuzen R.I.E.V.-ek), ezin ulertu ahal liteke Oiñatiko Euskal Ikasketen Biltzarrea (1918), beste edozein giza egintza ere, bere kanpo ulertzen ez den bezalaxe. Aldizkari hartako lankide asko, zuzendaria lehenengo, hain zuzen, biltzarre bikain hartako bazkide izan bait ziren.

1922ko urtean R.I.E.V. EUSKO IKASKUNTZAren aldizkari bilakatzen da. Baina Julio de Urkijo izango da beti, 1936ko gudatera arte, bere zuzendari. Orduan aldizkaria gaitzetsia izan zen, EUSKO IKASKUNTZAren beste iharduera askorekin batera.

Julio de Urkijo jauna 1950an hil zen, Gertakizun hau eta R.I.E.V. aipatuz, Vicente García de Diego jaunak «Boletín de la Real Academia Española»n (XXX. tomoa, 1950ko Iraila-Abendua), honela zion: «ordezpen gabeko galera honek langintza beraren aulezia edo etsipena ekar lezake beharbada eta agian az-

ken garaipena arriskutan jarri, euskeraren aldeko ertsiduran hainbeste kemen jarriaz gero».

«Etsipena» 1936az geroztik zetorren, EUSKO IKASKUNTZAren zereginetako asko galeraziak izan zirenean. Baina, elkarte hau, hain batean galdua, oraindik bizirik zegoan. Zenbait lan, batez ere Antropologiako sailekoak eta beste batzuk, Hego-Euskal-erritik kanpora egiten ziren, atzerriratutako lankideei esker batez ere.

Beraz, etnografiazko eta historiaurrezko ikerketak, bakoitzak bere argitalpenarekin, *Eusko-Folklore eta Ikuska,* alegia, eta Eusko-Jakintza deituriko ikaskuntzen aldizkariak, EUSKO IKASKUNTZAren egitamuari jarraitzen zioten, lehen baino gisa ahulago batez bazen ere. Bestalde, aipagarriak dira noski, Miarritzen eta Baionan ospatu ziren euskal-ikaskuntzen batzarrak, Buenos Airesko *Ekin* argitaletxea eta *Gernika* aldizkaria, Guatemala-ko *Euzko-Gogoa* aldizkaria eta beste zenbait ekintza eta argitalpen EUSKO IKASKUNTZAko bazkideei zor zaizkienak. Ekintza hauetako asko Euskal Gobernu erbesteratuak babesten zituen.

Urte luzeetan gogor iraun ondoren, Hego Euskalerrian gudateak sortutako egoera zapaltzailea biguntzen hasi zen eta hartaz gure elkartearen zereginetarako giro egokiagoa bizten. Eta orduan, elkartea berriro eraiki eta hirurogei urte lehenago jaio zen leku eta erakunde berberean —Oiñatiko unibertsitatean, alegia— bere burua aurkeztu ahal izan zuen berriro. Euskal ikasketak, beraz, berriro beren osoan jasoak izan ziren eta antolatuak eta beren sail zaharretara jarriak, berri batzuk ere sortuz, giro eta premia berriak eskatzen zuten bezala.

Ez dira gure lurrean falta euskal lurra eta etnia beren ikuspegi guztietatik ikertzen ari diren pertsona eta taldeak. Ekintza horiek bultzatu egin behar dira, tajutu eta eratu jakiundaz aurreratuenen arabera. Hori da EUSKO IKASKUNTZAK eraman nahi duen bidea.

Gure elkartearen aldizkari nagusiena, R.I.E.V. alegia, berriro azaltzen da. Bere bigarren aldi honetan izango ahal da aurrekoan izan zen bezala. Euskal ikerketak bultzatuko dituen tresna indartsua, gisa bereko herrialderik aurreratuenetako lan korronteekin kotuko gaituena, euskalarien arteko lotura izango dena eta gure ikertzaileen ardiespenak argitara emango dituena. Honetan

bai dugula gure ustea bermaturik, ikusirik gure zuzendari eta adiskide min den Julio Caro Baroja jaunaren gaudimen burutsu eta jakintsu ohiezbezelakoa.

Ataun, 1982ko Abenduak 31, nere 93n urte-betetzean.

# PRESENTACION DE LA REAPARICION DE LA RIEV (23-IX-1983)*

Una visión retrospectiva de lo que fue la *Revista Internacional de los Estudios Vascos* mientras ésta fue dirigida por su fundador D. Julio de Urquijo, podrá servir de anotación preliminar de esta su segunda andadura que ahora se inicia impulsada por EUSKO-IKAKUNTZA.

Fue la RIEV, desde sus comienzos, una publicación abierta a las corrientes de más renombre en los diversos ramos del saber relacionados con la vascología. D. Julio de Urquijo la fundó en 1907, contando con la colaboración de los más eminentes en los estudios de la lengua y de los demás aspectos de la vida vasca.

Desarrolló, pues, su plan, atendiendo a diversas facetas de la tierra y de la población vascas: la geografía de nuestro país, la vieja lengua de sus habitantes, el tipo humano de éstos, sus modos de vida, su sociología, su historia, etc., es decir, la etnia vasca, el pueblo vasco que ya había sido considerado como el más antiguo grupo humano, único identificable en el Neolítico de la Europa occidental.

---

* Sacado de la revista RIEV, tomo 28, nº 1, Enero-Junio 1983, ps. 9-11, Donostia: Eusko Ikaskuntza

Las ciencias que hemos señalado habían logrado ya codificar sus reglas —métodos de investigación, de comparación y de interpretación de los hechos—, conforme a las cuales podían ser estudiados, con la mayor objetividad posible, cuantos aspectos o perspectivas fueran abordables en el campo de investigación de lo vasco.

Afortunadamente existían a la sazón vascólogos, en el país y fuera de él, hombres dedicados a diversas disciplinas científicas, que, en sus respectivas especialidades, las aplicaban a la búsqueda de soluciones de los problemas que planteaba nuestro pueblo. Pero hacía falta agruparlos o tener una institución u órgano que los relacionara, los conectara y uniera.

A eso aspiraba D. Julio con la RIEV y lo consiguió en gran medida. En los números publicados en su primer año (1907) figuran los nombres de Domingo de Aguirre, Telesforo de Aranzadi, Federico de Baráibar, Arturo Campión, el Conde de Charencey, J. B. Daranatz., V. Dubarat, Carmelo de Echegaray, Fidel Fita, G. Hérelle, J. de Jaurgain, Georges Lacombe, Pierre Lhande, L. de Lizarralde, Serapio Mugica, Hugo Schuchardt, Julio de Urquijo y J. Vinson.

La revista continuó así durante quince años, movilizando a los mejores, en su afán de promover, fomentar y dar a conocer los estudios del país y del *euskera* y de la cultura de nuestro pueblo.

Así contribuyó eficazmente a formar un campo propicio para nuevos adelantos. Por eso, sin aquel caldeado ambiente de la segunda década de este siglo, en cuya formación colaboró poderosamente la RIEV, no sería explicable el Congreso de Estudios Vascos de Oñate (1918), como no lo es ningún hecho social fuera de la escena vital en la que ha nacido. En efecto, muchos de los colaboradores de aquella revista, empezando por su director D. Julio de Urquijo, tomaron parte activa en aquella magna asamblea.

En 1922 la RIEV pasa a ser órgano de EUSKO-IKASKUNTZA; pero D. Julio continuará siendo su director hasta la guerra civil de 1936, que motivó la suspensión de dicha revista, como la de muchas actividades de la Sociedad de Estudios Vascos.

D. Julio murió el año 1950. Aludiendo a esto y a RIEV, decía D. Vicente García de Diego en el *Boletín de la Real Academia Es-*

*pañola* (tomo XXX, Septiembre-Diciembre de 1950) lo siguiente: «Esta baja sin sustitución acaso traiga el desmayo de la empresa y acaso ponga en peligro la victoria final, cuando tantos afanes se habían puesto en el asedio de la verdad del vascuence».

El «desmayo» ya venía desde el año 1936, con la forzada suspensión de gran parte de las funciones de la sociedad EUSKO-IKASKUNTZA. Pero esta entidad, parcialmente extinta, vivía todavía. Algunas de sus tareas, particularmente las de la sección de Antropología y algunas más, continuaban siendo realizadas fuera de Vasconia peninsular, gracias ante todo a los socios exiliados.

En efecto, las investigaciones etnográficas y prehistóricas, con sus correspondientes órganos de expresión *Eusko-Folklore e Ikuska,* y un boletín de estudios llamado *Eusko-Jakintza,* seguían vigentes. Además, los congresos de estudios vascos celebrados en Biarritz y en Bayona, la editorial *Ekin* de Buenos Aires, la revista *Euzko-Gogoa* de Guatemala y otras actuaciones y publicaciones debidas a miembros de EUSKO-IKASKUNTZA. Muchas de estas actividades fueron patrocinadas por el Gobierno Vasco en el exilio.

Tras largo tiempo de reciedumbre, fue lenificándose la situación represiva creada por la guerra en el País Vasco meridional y reapareciendo aquí el ambiente propicio a las tareas de EUSKO-IKASKUNTZA. Y esta Sociedad pudo reconstituirse y hacer su presentación pública en la misma localidad e institución —Universidad de Oñate— en la que naciera sesenta años atrás. Los estudios vascos fueron, pues, asumidos plenamente y organizados e incorporados a sus antiguas secciones y aún a otras, como los nuevos tiempos y necesidades lo exigían

No faltan hoy en nuestro país personas y grupos dedicados a estudios de la etnia vasca en todos sus aspectos. Hay que fomentar tales actividades, coordinarlas y sistematizarlas conforme a reglas y criterios aceptados en los medios científicos más acreditados. Por ahí trata de encauzar su labor la Sociedad de Estudios Vascos.

El órgano principal de esta sociedad, la RIEV, vuelve a aparecer ahora. Creemos que será, en esta su segunda etapa, como lo fue en la anterior, instrumento poderoso que promueva los estudios vascos, los conecte con las corrientes generales de similares

empresas de los países más adelantados, que sirva de lazo de unión a los vascólogos y que publique los resultados logrados por nuestros investigadores. Tenemos en esto firme garantía de éxito, dada la indiscutible y extraordinaria solvencia intelectual y científica de su director actual, nuestro entrañable amigo D. Julio Caro Baroja.